



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Zientzia Politikarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Universidades e
Investigación
Dirección de Política Científica

EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2014ko abenduak 17koa, 2014-2015 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko uztailaren 1eko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko uztailaren 1eko aginduak, 2014-2015 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duenak, xedatutakoaren arabera, pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programaren barruan hasieran eman diren dirulaguntzak berrituko dira: lehenengo eta bigarren berritzea A, B eta C modalitateetan; eta hirugarren berritzea AE, eta AK modalitateetan.

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta, 2014ko uztailaren 1eko aginduak, 2014-2015 ikasturtean ikertzaileen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eta horien berriz ematea deitzen dituenak, xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren A, B eta AE modalitateetako onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen berritzea ematea, 2014-2015 ikasturterako, ezarpen zentroa eta horiek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren A, B eta AE modalitateetako onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen berritzea ematea, 2014-2015 ikasturterako, ezarpen zentroa eta onuradun bakoitzak ordainsari gordina adieraziz.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren AK eta C modalitateetako onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen berritzea ematea, 2014-2015 ikasturterako, beka eta bidaiagatik jasoko duten zenbatekoa adieraziz.

Modalitate hauetako ikertzaileak bekaren egoera juridikoan jarraituko du. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin berrituko dira dirulaguntzak

Laugarrena.- Indarrean dauden lan kontratuak luzatu egingo dira 2014ko uztailaren 1eko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Kontratuak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu. Dena den, data horretan 2014ko uztailaren 1eko Aginduaren 6.2 artikuluan ezarritako arrazoiengatik, eta Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpenagatik, luzapen egoeran daudenak kontratua sinatuko dute luzapen hori bukatu eta hurrengo egunean.

Bostgarrena.- 2014ko uztailaren 1eko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, ordaintzeko era, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.net egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko abenduaren 17an.

ITZIAR ALCORTA IDIÁQUEZ

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea